



EBAZPENA, 2024ko uztailaren 4koa, Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketako zuzendariarena, zeinaren bidez bigarrenez aldatzen baita zuzendari beraren 2024ko apirilaren 8ko Ebazpena, zeinaren bidez argitaratzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan ordezkapenak egiteko izangaien behin betiko zerrenda, 2024/2025 ikasturterako.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2024ko apirilaren 8ko Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko izangaien behin betiko zerrenda argitaratu zen, 2024/2025 ikasturterako.

Ordezkapenak egiteko izangaien behin betiko zerrendan akatsak daudela ikusi da, eta zuzendu egin behar dira.

Horietako bitan omisio-akatsak izan ziren, ez baitzen izangai bat agertu zerrenda horretan (Ane Arteche Rodríguez andrea), eta, beste batean, bigarren izangai baten (Aitziber Bastida Urruzola andrea) lan-esperientziagatiko puntuazioa ez zelako agertu.

Eta, azkenik, zuzendu egiten da Naiara Madariaga Orbe izangaiaren titulazioei buruzko merezimenduaren zenbaketa okerra: zenbatu zitzaion ez zuen bigarren diplomatura bat. Zegokion izapidea eta interesdunari alegazioak aurkezteko emandako epea egin ondoren, ikusi da ez duela. Izangai horrek alegazioa izangaien behin betiko zerrenda argitaratu ondoren aurkeztu zuenez, ezin izan zen hura aztertu eta zuzendu argitalpen horretan.

Beraz, azaldutakoarekin bat etorritz, honako hau

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Aldatzea Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2024ko apirilaren 8ko Ebazpena, zeinaren bidez argitaratu baitzen Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko izangaien behin betiko zerrenda, 2024/2025 ikasturterako. Honela aldatzen da ebazpen hori:

- Ane Arteche Rodriguez andrea ordezkapenak egiteko izangaien behin betiko zerrendan berriro sartzea, 0804 Arpa espezialitatean, Arabako eta Bizkaiko lurralde historikoetan. Guztira, 86,45 puntu izango ditu, dagokion puntuazioaren hurrenkeraren arabera.
- Aitziber Bastida Urruzola andreari 62 puntu ematea Gipuzkoako Lurralde Historikoko 5113 espezialitateko (Hezkuntza-laguntzako espezialista) behin betiko zerrendan, eta dagokion puntuazioaren hurrenkeraren arabera.
- Naiara Madariaga Orbe andreari 36,25 puntu ematea, bera dagoen zerrenda bakoitzean. Horietatik 0,50 puntu merezimenduen baremoko "2.3.- Beste diplomatura batzuk" atalari dagozkio, eta zerrenda horietako bakoitzean dagokion puntuazioaren hurrenkeraren arabera.

Bigarrena.- Ebazpen hau Sailaren webgunean argitaratuko da: [2024-2025 ikasturtearen birbaremazioa - Ordezkapeneterako izangaiak - Irakasleak - Euskadi.eus](#) eta Hezigunean / ordezkapen izangaien birbaremazioa / Berriak

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 4a

Langileak Kudeatzeko Zuzendaria
BLANCA GUERRERO OCEJO